orozkogaur

Zenb_Num: 28
2018ko apirila
OROZKOKO UDAL
ALDIZKARIA
www.orozko.eus



# Abierta la subasta pública para las últimas viviendas y locales de Hegoalde

El Ayuntamiento de Orozko ha sacado a subasta pública todos los bienes inmobiliarios, excepto una vivienda, de los que es propietario en la promoción Hegoalde. Estos elementos son, concretamente, 2 pisos con garaje y trastero, una lonja y 3 plazas de garaje.

### Últimos bienes

Cabe destacar que estas son las últimas propiedades inmobiliarias de Zubiaur Eraikuntzak que, tras su disolución, han pasado a ser del consistorio local.

Aunque anteriormente ya estaban a la venta, al convertirse en propiedad del Ayuntamiento ahora se tienen que adjudicar a través de una subasta pública. Recientemente se ha vendido un piso que salió a licitación por 148.989,64€ (sin IVA) por 555,81€ más que su precio base.

### Un año

Los precios de la subasta se mantienen durante un plazo de un año y se venderán a medida que haya personas interesadas en su compra. El precio del piso que está en el nº7 de la calle Ipergorta, el 1º A, es de 159.388,91 euros (sin IVA). El local comercial situado en esa misma calle tiene un precio de 67.453,31€ y las parcelas de garaje 11.999,16€.

# Udalbatzak adostu duenez, Bizkaiko Ur partzuergoarekin bat egitea aztertuko du Orozkok

Martxoko Osoko Bilkurak onartu zuen Bizkaiko Ur partzuergoarekin bat egitea aztertzea. Horretarako bi erakundeek elkarrekin prestatuko dute txosten teknikoa hurrengo hilabeteetan. Bertan jasoko dira baldintzak eta betebeharrak, eta, ondoren, udalbatzan onartu edo atzera bota beharko da. Orain arte Orozkok kudeatu izan du tokiko ur horniketa eta saneamendua. Hala ere, hainbat arazo daude gaur egun, besteak beste, zuzenean ibaira egiten diren isurketak edotа egoera desegokian dauden auzoetako putzu septikoak. Udalaren ustez, Orozkok momentu honetan ez du gaitasun nahikorik kudeaketa hori ondo egin eta beharrezko hobekuntzak burutzeko hondakin-uren tratamendurako araztegia abiatzen denerako.

# Aprobado el Plan para hacer frente al incumplimiento de la ley de estabilidad

Aunque el presupuesto aprobado por el Ayuntamiento para 2018 está equilibrado, no cumple con la Ley de Estabilidad. Esa norma establece que las administraciones públicas tienen un techo de gasto que no puede ser un 2,4% superior al de 2017. El crédito para la construcción del centro de salud hace que Orozko incremente el gasto en un 11% con respecto a 2017 y, por lo tanto, incumple con los límites de gasto.

Estos incumplimientos han obligado al Consistorio a elaborar y aprobar un Plan Económico Financiero. En el caso de Orozko, y por ser un incumplimiento de la Ley por un crédito puntual, el Plan indica que será suficiente con volver a la senda de la normalidad en 2019. Para ello bastará con no abrir ninguna línea de crédito en los presupuestos del año que viene. Este plan fue aprobado en el pleno del mes de marzo; disponible íntegramente en la página web municipal.

En cuanto al endeudamiento, Orozko está por debajo del 60% de endeudamiento (41,71% con el crédito abierto). En este caso, sí se cumple con la capacidad de endeudamiento del municipio.

## Europar mugikortasunerako eskualdeko beka programa aurkeztuko dute

Gazteria, enplegua eta mugikortasunaz aritzeko Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko mintegia egingo dute apirilaren 17an, 18an eta 19an Arrigorriagako Lonbo Aretoan. Hitzaldiak, saio praktikoak zein lanerako mahai-inguru tematikoak egongo dira. Egitaraua osorik argitaratuko da www.orozko.eus udal webgunean.

### Eskualdetik Europara

Mintegian, apirilaren 18an 17:30etik 20:30era, Nerbioi-Ibaizabaleko Udalek gazteen eskura jarriko dituzten Europar mugikortasunerako beka programaz informazioa eskainiko dute. Mintegian parte hartzeko izen emateak Induma zerbitzuan gauzatu ahalko dira.




## Baserri hondakinen gaikako bilketa-egutegia argitaratu du Aldundiak 2018rako

Informatu dute ekainaren 27an, irailaren 26an eta abenduaren 26an hondakin zoosanitarioak jasoko dituztela, goizez Orozkoko kooperatiban eta arratsaldez Ugaoko Agronerviónen. Halaber, hondakin horien bilketa ere egingo da ekainaren 28an, irailaren 27an eta abenduaren 27an Igorreko Miban edo Lemoako Lur 2000an goizez eta Urduñako Almacenes Ruiz de Sarachagan arratsaldeko ordutegian. Plastikoen bilketarako data bakarra egongo da, maiatzaren 21etik 25era. Azpimarratzekoa da ere artile bilketa zerbitzuan izena emateko epea uztailaren 2an irekiko dela eta 6ra arte iraungo duela. Horretarako 94 631 55 25 telefonora deitu beharko da.

Produktu fitosanitarioak urte osoan jasoko dira Igorreko Garbigunean, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00ak arte eta 15:30etik 20:00ak arte. Larunbatetan soilik goizez egongo da zabalik.

## Garai bateko txirrindulak ikusgai



30 urtez txirrindularitza munduan aritu ondoren, Álvaro Iturraspe artziniegarrak aspaldiko bizikleten bilduma egiten du gaur egun eta bere piezen erakusketa eskainiko du apirilaren 13tik 29ra Orozko Museoan. Bertan ikusgai egongo dira 1951tik 1994ra bitarteko 20 bizikleta baino gehiago, 1960 eta 1990 urte arteko maillotak eta garai bateko lasterketetarako koadro eta lamina ugari.

Ohi bezala, erakusketa aretoa zabalik egongo da asteartetik igandera eta jai egunetan 10:00etatik 14:00etara eta ostiral eta larunbatetan goizez zein arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.

## Abierto el concurso para la gestión de Orozkoko Museoa

En junio finaliza el contrato con Iparnature, la empresa que gestiona el museo y el punto de información turística en la actualidad. Por ello se ha abierto el concurso público para dos años de contrato con otros dos prorrogables por 38.400€ (sin IVA) anuales. En este nuevo proceso se ha incrementado el precio para garantizar que quien lo gane cumpla con el convenio colectivo del sector. Ahora no se ha incluido el punto de información turística porque es un servicio que se da a todo Gorbeialde y será un aspecto que la Agencia de Desarrollo Rural tendrá que acordar con la empresa ganadora. Se puede obtener más información en la página web municipal www.orozko.eus.

# Auzoetako batzarren ziklo berria hasiko da udaberrian



Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu eta partaidetza sustatzeko, sei hitzordu egongo dira apirilean. Hainbat gai landuko dira: Auzoetan egindako ekintzak eta aurreikusitakoak, bideak konpontzeko plana, parte-hartze eta gardentasunaren ordenantza, Arbaitza eta Muruetan errekak (URAgaz eukindako batzarra), Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, ur-partzuergoa eta Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT/ITE). Informazio gehiago www.orozko.eus udal webgunean.

| | | |
|---|---|---|
| **Apirilak 14** de abril | Zaloa (Ermitan) / Ibarra (Txokoan) | 10:00 / 12:00 |
| **Apirilak 15** de abril | Arbaitza (Txokoan) | 10:00 |
| **Apirilak 19** de abril | Murueta (Sozialean) | 19:00 |
| **Apirilak 20** de abril | Goikiria (Txokoan) | 19:00 |
| **Apirilak 21** de abril | San Miguel (Ermitan) | 11:00 |

## Maiatzeko zubian mendiaz gozatzeko aukera egongo da beste behin

Hirugarren urtez jarraian, Orozkoko Udalak gazteei bideratuta barnetegia egingo du Gorbeia mendian maiatzeko zubian. Hala, 14 eta 17 urte arteko gaztetxoek Goikogane Mendi Taldeak bertan duen aterpetxean emango dituzte egunak.

Euskara, elkarbizitza edo lankidetza jorratzeaz gain, gure historian eta kulturan mendiak duen garrantziaz jabetzeko ere aukera izango dute parte-hartzaileek. Horretarako hainbat ekintza egin izan dituzte aurreko urteetan: orientazioa, mendi irteerak, nekazaritza jarduerak edo aspaldiko lanbideak: neberen zaintza edo ikazkintza.

Plaza kopurua mugatua da (20) baina 2 edo 3ko taldeetan izena emateko aukera egongo da. Induma zerbitzuan jaso daiteke informazio gehiago edo matrikula gauzatu.

## Adjudicados nuevos aprovechamientos forestales

Se ha realizado un aprovechamiento forestal de varios rodales situados en cuatro de los montes públicos de Orozko mediante subasta pública. Este consistía íntegramente en entresacas, 20 lotes que sumaban 107 hectáreas de pino insignis, pino laricio, alerce, abeto Douglas, cedro del Atlas y haya. El precio de salida de todos los lotes era de 25.736€, y se ha adjudicado a Central Forestal S.A.U. por ese precio.



## Tokiko haziak jasotzeko deia egin dute eskolako haurrek



Iaz ortu bat jarri zuten martxan Orozkoko eskolan. Harrera oso positiboa izan da eta ikasleak ereiten zein uzta biltzen ibili dira azken hilabeteetan. Orain tokiko barietateak haztea dute helburu, adierazi dutenez, "jada gure girora moldatuak daudenak eta gure aldean primeran funtzionatzen dutenak" eta horretarako herritarren kolaborazioa eskatu dute: "Gurekin haziak konpartitzen badituzue gure ondarearen zati bat babesten laguntzen egongo zarete".

Eskolan postontziak jarriko dituzte haziak batzeko. Ondo gordeta eta identifikatuta ekartzeko eskaera ere egin dute, barietateen ezberdintasun eta ezaugarriei buruzko zabaltzak sortuko balira, errazago kudeatu ahal izateko.

## Orozko y Begues se dan la mano para homenajear a Blas de Otero mediante la pintura



El próximo 5 de mayo se inaugurará en el Museo de Orozko una exposición de pintura que retratará obras del poeta Blas de Otero. La muestra, titulada “Me queda la mirada”, es un tributo visual a la obra del autor, en la que 25 artistas vascos y catalanes expresan lo que otros tantos versos del poeta les han sugerido. Cada pintor o pintora retratará lo que el verso que le ha tocado le inspire. Cabe destacar que entre el grupo de artistas forma parte de este proyecto la joven orozkoarra Soiartze Alday.

La idea parte de Vallgrassa, el Centre Experimental de les Arts, y en este proyecto están implicados tanto los pueblos de Orozko y Begues (Barcelona) como las dos Diputaciones de Bizkaia y de Barcelona. Asimismo, se ha desarrollado en colaboración con la Fundación Blas de Otero. Orozko es el punto de inicio de esta exposición que posteriormente se expondrá en Bilbao en la Sala Ondare (María Díaz de Haro) y en el Palacio John (Casco Viejo). Depués del verano la muestra viajará a Cataluña.

## ZINEMALDIA

| APIRILAK 8 | APIRILAK 15 | APIRILAK 22 | APIRILAK 29 |
| --- | --- | --- | --- |
| 19:00 | 19:00 | 19:00 | 19:00 |
| La forma del agua | Errementari | La tribu | Inmersión |













* Apirilean ez da haurrentzako zinemarik egongo. En abril no habrá cine infantil.

HAURRAK / INFANTIL **3,5€** • **BONOA 12€** // HELDUAK / ADULTOS **4,5€** • **BONOA 16€**

# agenda

**13.** **BIDEO EMANALDIA ETA HITZALDIA**
2017ko urriaren 1ean Katalunian izandako erreferendumaren inguruan. Orozkoko Gure Esku Dagok antolatuta.
*19:30. Donibane Aretoan.*

**13-20.** **ERAKUSKETA**
Aspaldiko bizikletak eta txirrindularitza munduko materiala ikusgai.
*Orozko Museoan*

**14-15/19-21.** **REUNIONES**
Reuniones de barrio en Zaloa, Ibarra, Arbaitza, Murueta, Goikiria y San Miguel.
*Más información en www.orozko.eus*

**17-18-19.** **SEMINARIO COMARCAL**
Juventud, movilidad europea y empleo. Amplia programación, ver cartel aparte.
*Lonbo Aretoa, Arrigorriaga.*

**20.** **AURKEZPENA**
Ekainaren 10ean Euskal Herri mailan egingo den giza katearen ekimenaren aurkezpena. Gure Esku Dagok antolatuta.
*Plazan.*

**30-16.** **CURSO TEÓRICO-PRÁCTICO**
Arduino: tecnología, programación y diseño de aplicaciones. Más información en www.orozko.eus e inscripciones hasta el día 20 en Induma.
*19:00-21:00. Biblioteca. 50€.*








